



**GERHARD BÄHR**  
**(1900-1945)**

Egilea:

**ELIXABETE GARMENDIA**

Nork esan Alemaniako Armadaren uniformeaz jantzita eta atzeko horman Hitler-en irudia duela ageri den gizon hori euskalaria zenik? Ba, garaitsu horretan, 1941ean, gizon hori erruki zen euskararen etorkizunaz. Beldur zen Espainiako gerraosteko giroak ez ote zuen mendeetako hizkuntza zaharra itoko, eta hori gertatuz gero, dio, «min hartuko nuke». Izan ere, euskalaria bakarrik ez, euskaltzalea ere bazen.

Gerhard Bähr alemaniarra zen jatorriz, familiaz eta heziketaz. Legazpiko Udanan jaio eta bertaratutako alemaniarra. Aizkorri azpiko euskararen doinuak txikitan kulunkatua, gaztaroan hizkuntza honen jabe azkar batean egin eta zientifikotasun germaniarrez bere misterioetako batzuk arakatu eta aztertzeari eskaini zizkion urterik onenak. Bizitza laburregia gertatu zitzaion, patuak Bigarren Mundu Gerra amaitu bezperan lapurtu baitzion bizia, artean 45 urte bete gabe. Gerrateak ostu zituen halaber bere azken aldiko lanak, liburutegia bonbapean kiskalita. Hala ere, bere garaian euskalgintzan izandako eraginak eta bereziki

hizkuntzalaritzan utzitako ondareak euskalarien galeriako figura bihurtu dute Gerhard Bähr.



Gerhard Bähr (1900-1945)

# 2

## ALEMANIARRAK UDANAN

Udana gainean, Legazpitik Oñatirako bidean eskuinetara, bada etxe bat ingurukoak ez bezalakoa. Estiloz Europaren iparraldeko airea nabari, onenak emanda baldin badago ere, antzematen zaio gustuz altxatako eraikina dela: leiho handiak, udan toldoz estaltzen zen terraza, landare bitxiz hornitutako lorategia... 1891-92an egina da eta hortxe daude Bärh-tarren aztarnak, bertakoek *Alemanen Etxea* deitzen dioten horretan.



Gerhard armadako uniformeaz, irakurtzen, horman Hitler-en irudia.



*Alemanen Etxea* Udana gainean.

Gerhard jaio zenerako –1900eko maiatzaren 6an– bere aita Friedrich Bähr-ek hamar bat urte zeramatzan Euskal Herrian. Kataberako meategietako zuzendaria zen, *Real Compañía Asturiana de Minas*-en eskutik. Saxonia Beheretik zetorren, Alemaniako ipar-mendebaldetik. Jaiotzaz Osterodekoa, emazte herrikidea hartu zuen, Johanna Von Daacke, eta berekin familia osatu. Gerhard-en aurretik seme bat izan zuten, Friedrich, eta ondoren berriz, beste hiru seme-alaba, Joachim, Mercedes eta Hans, guztiak Legazpin jaioak, 1898 eta 1908 bitartean.

Udanako etxeak adierazten duen bezala, Bähr-Von Daacketarrek, inguruari muzin egin gabe, izaera eta bizi-maila alemaniarrari eusten zioten egunerokoan. Pare bat neskame eta morroi zituztela beren zerbitzura, umeak zaintzeko *fraülein* edo institutrizen bat izaten zuten etxean. Alaba Mercedes baino ez zuten bidali Legazpiko eskolara. Mutilek etxean egin zituzten lehen ikasketak, irakasle alemaniarrekin, harik eta batxilerra egitera Alemaniara joan ziren arte.

Nolanahi ere, eta hizkuntza muga izan arren –gurasoak ez omen ziren iritsi sekula ezta gaztelania ere txukun egitera–, bertako adiskideak egin zituzten Bähr-tarrek, batez ere seme-alabek. Horien artean euskal giroa gehienbat bizi izan zutenak, Mercedes –txikitan euskara hitz egiten zuen– eta Gerhard.

3



Kataberako mea egosteko  
labeak Udanan.

# 4

Erlizioz protestanteak, beraien ohiturek eskandalutik hurbil zegoen harridura sortzen zuten batzuetan. Adibidez, ama, Johanna, lasai aritzen omen zen puntua egiten igandeetan ere, erlijio katolikoak batere lanik ez egitea agintzen zuenean. Ordainetan, dena den, berak trikotatutako jantziak behartsuen artean zabaltzen omen zituen. Etxeko burubideetan hemengoa ez bezalako kultura zuten. Aita, Friedrich, baratzezalea ere bazen eta fruta arbola ederrak lantzen zituen. Baita sariren bat irabazi ere bere sagarrekin Euskal Jai batzuetako lehiaketan. Gizonaren abildadeari

jarraiki, Johannaren mermeladak estimazio handikoak ziren lagunen artean. Erlategia ere bazuten. Hori dena erosotasun eta aurrerapenez hornituriko etxean: zaldi bikainek tiratutako kotxeak, Legazpiko lehen bizikleta...

Ongizate hori guztia, dena den, jaioterriko gorabeheren baitan zegoen neurri handian. Lehen Mundu Gerrak (1914-1918) izan zuen eraginik Alemanen Etxean. Alemaniako kontsularen adiskide izanik, hark bidalitako herritarrak izan zituzten aterpetuta Udana gainean. Eta gerra



Johanna Von Daacke eta Friedrich Bähr senar-emazteak.

horren ondoren galdu zuen Friedrich aitak bere lanbidea. Udanako etxea utzi eta Legazpiko Olaberri auzora aldatu behar izan zuten Bähr-tarrek. Handik berriz, Ormaiztegiara jo zuten 1922 aldera. Ermitta izeneko etxean bizi izan ziren. Han zeudela, Friedrich ondoezik, Donostiara sendagilearengana jo eta diagnostiko ikaragarriaren berri eman zion: hesteetako minbizia zeukan. Egia osoa jakin nahi zuela esana zion medikuari, baina gizon puska haren kemenak behea jo zuen egia gordinaren aurrean. Handik gutxira hil zen, 62 urterekin. Johannak, ordurako seme-alaba guztiak Alemanian ikasketak egiten zeuzkala, harako bidea hartu zuen laster, 1926an. Hor bukatu zen Bähr-tarren bizialdia Euskal Herrian. Ez, ordea, lotura guztiak. Gerhardek, distantziaz gaindi, eta tarteka hona etorritz, euskalgintzari lotuta segitu zuen. Oraindik bere lanik oparoenak emateko zeuzkan.



Osterodeko kale bat.

## INTELEKTUALA OSATZEN

Gaztetxotatik nabari da argazkietan Gerhard-en intelektual itxura. Betaurreko biribilen atzetik, miopia ezkutatu ezin duten begiak eta hausnarketarako joera adierazten duen bisaia. Halaxe azaltzen da familia osoa biltzen duen 1913ko argazki batean. Anaia zaharrenak itxura uzkurragoa dauka; hirugarrenak, Joachim-ek, aurpegiera alaia, arrebak panpoxarena eta txikienak haur tematiarena. Gerhardek, erdian, urrutitik erreparatuz eusten dio kameraren begiradari. Azken urteetako argazki batean, berriz, ezaugarri berberekina ageri da, izatekotan ere ezpainak ez hain estu, apur bat erlaxatuago eta gozoago. Bi argazkien hogeita hamar urteko tartean, lehendabizi bere burua hezten eta gero lan intelektual jorratzen igarotako denbora aberatsak, beti ere gerrateen parentesiekin.

Izan ere, 1912-1918 bitartean Naumburg-eko Schul Pforta ikastetxean aritu zen, errebalida burutu artean. Eskola horrek oso oroitzapen ona utzi zion, neurri handian bere jakin-mina ase ziolako, bai ikasketa teknikoetan eta baita humanitateetan ere, hizkuntza klasikoetan bereziki. Baina Legazpira itzuli aurretik, Lehen Mundu Gerran parte hartu behar izan

zuen, Belgikako frontean hain zuzen ere, gudako azken hilabeteetan. 1919an etorri ahal izan zen Euskal Herrira, eta bertan bi urte egin. Tarte horretan heldu zion euskarari, eta nola, tximistaren pare! Euskara ikasi eta euskaltzain urgazle izendatzea, dena ia bat izan zen.

1921-1928 bitartean, berriro Alemanian, unibertsitateko ikasketei ekin zien Gerhardek. Göttingen-eko Unibertsitatean hain zuzen ere, kimika ardatz hartuta, natur zientziak eta fisika ahaztu gabe. Azken kurtsoa, berriz, Hannover-en egin zuen, Saxonia Behereko hiriburuan. Lizentziatura nagusia kimikan, baina horrezaz gain frantses eta ingeleseko irakasle titulua, baita soinketa eta kiroletakoa ere, eta irakaskuntzan aritu

**ERIZKIZLUNDI IRUKOITZA**  
(TRIPLE QUESTIONNAIRE) 117

EUSKALTZAINDIEN  
BIRRIK BIRRIK IRUKOITZA (IZAN BIRRIK)  
ERIKI AURKATZUEN  
NUTRIKIZIEN

I. ITZEN OTSA (Cognomeno Funtzioa)  
II. ITZEN ERABIDEA (Cognomeno Morfoloia)  
III. ITZ BATZUEN ERABIDEA (Cognomeno Morfoloia)

Erizkizlundiaren izena: Martina Alhordi  
Josefa Bahr

Erizkizlundiaren jarduera: Irakaslea (Regina)

Erizkizlundiaren adina: 31 38

Erizkizlundiaren jarduera: Josefa Bahr

Gerhardek Erizkizlundi Irukoitzerako bildutako galdeketa bat.

ahal izateko pedagogiako beste titulu bat eskuratu zituen. Honenbestez, bistan da gaitasun eta jakintza arlo anitzak landu zituela.

Lanbidea aukeratzean, nola ez, irakaskuntzara jo zuen. Hildesheim-eko Goi Institutuan hasieran, gero Hannover-eko ikastetxe ezberdinetan jardun zuen. Hiri hartako Realgymnasiumen ezagutu zuen, 1932an, gerora emazte izango zuena, Erika Micha, lankide baten alaba. Hala ere, hamar urte iragan ziren ezkondu arte. Gerhardek, nonbait, bazituen aurreagoko lanak. Besteak beste, euskararen ingurukoak.



Azkueren Latsibi eleberria gipuzkerara aldatu zuen Bähr-ek, eskuizkribu honetan ageri den bezala.



## BEKADUN ZIKLISTA

Bähr-ek euskalgintzari heldu zion lehen urteetan ezusteko tresna bat, garaian modernoa, izan zuen lagun: bizikleta. Autorik apenas, tren eta autobusak eskas, Gipuzkoan zehar, herriz herri, Euskaltzaindiaren enkarguz *Erizkizundi Irukoitza* osatzeko, eta bide batez aditz jokoak

jasotzeko egin zituen ibilietan, ezinbesteko laguna izan zuen bizikleta. Bizikletaren azkartasuna probatu gabe geratu da, ez ordea jabearena.

Izan ere, Gerhardek marka guztiak hautsi zituen euskara ikasi eta euskalgintzan bete-betean sartzeari dagokionez. 1919-1921 bitartean egin

Udanan, 1909ko  
ekainaren 20an.



zuen hori dena. Lehen Mundu Gerra osteko Alemanian giroa baretu bitartean, etxekoek senide gazteagoen ikasketen ardura ezarri zioten Legazpin. Horrekin nahikoa ez nonbait eta euskaran jarri zituen begiak. Mercedes arrebaren laguntza izan zuen lehen hitz eta esapideak ikasteko. Hortik aurrera auzoan bilatzen zituen mintzaideak. Udana gainak, Legazpi eta Oñatiren artean, bi euskalkiren arteko alderaketak egiteko balio izan zion gainera. Izan ere, ordurako hizkuntzalaritzan interesatuta zegoen, eta berehala osatu zuen arlo honetako lehen lana: «Legazpiko aditzaz» hain zuzen ere, Erraimun Olabidek 1921eko otsailaren 24an, Euskaltzaindiaren osoko bilkuran irakurri zuena. Lan hori ezagutzearekin batera, Bähr euskaltzain urgazle izendatzea erabaki zuten. Hogeita bat urte bete gabe artean, Euskararen Akademiak inoiz izan duen euskaltzain urgazle gazteena bihurtu zen.



Lau senide zaharrenak, aita-ama eta zaintzailearekin.



Udanako terrazan, aitarekin.



Udanako lorategian.

9



Elurretan, 1909 aldera.

# 10

Ordurako Bähr Euskaltzaindia oraindik sortu berriarekin harremanetan zen, aurreko urtetik hasita, Resurrección M. Azkue presidenteari euskaraz igortzen zizkion gutunen bidez. Azkueri ez zion ihes egin *fitxaje* hark, eta horrenbestez, laster ekin zioten urteetan luzatuko zen lankidetza aberats eta alditan arazotsu samarrari. Bähr-ek zuen estimazioaren lekuko, hauxe: Euskaltzaindiak enkarguz

eskatzen zizkiola lanak eta ordaindu. Jose Antonio Arana Martijak dioenez, Bähr izan zen Euskaltzaindiaren lehen bekaduna. Laster, eta artean hogeita sei urte bete gabe, Azkuek euskaltzain osotarako aurkeztu nahi izan zuen alemaniarra, Karmelo Etxegarai hil berriaren lekurako. Gerhardek, ordea, uko egin zion proposamen horri, bera baino aurreagokoak bazeudela iritziz, eta Bonifazio Etxegarai, Karmeloren anaia, izendatu zuten.



Familia osoa 1913an.

## HIZKUNTZALARI ALEMANIARRREN TRADIZIOA

Hasteko, herrikide zuen Schuchardt hizkuntzalariaren itzulpen batzuk eskatu zizkioten Akademiakoek Bähr-i. Honela *Baskische Studien*-eko zati bat, aditzari zegokiona, aurkeztu zuen Gerhardek. Ondoren Schuchardt-en beraren *Sarako euskara* itzultzea agindu zioten. Bähr, bistan da, zubi ezin egokiagoa gertatzen zen hizkuntzalari alemaniarraren eta euskaltzainen artean, ez itzultzaile huts modura bakarrik, haren ikasle eta jarraitzaile zelako baizik.



Maisua ezagutarazteko asmoz idatzitako soslai.

11



Ormaiztegiko *Ermitta* etxean, 1923-1926 artean.

# 12

Hala aitortzen du Bähr-ek bere burua, maisua hil ondoren idatzitako soslaian. Nafarroako *Euskeraren Adiskideak* izeneko elkarteak argitaratu zuen Bähr-ek Hildesheim-en, 1928ko abenduan, sinatutako *Hugo Schuchardt zana*. Nabari zaio Bähr-i euskaldunei oro har, ez bakarrik hizkuntzalari eta kultur mundukoei, Schuchardt ezagutarazteko gogoia. Idatzia oso modu grafiko eta irakurterrazean aurkeztuta dago. Horren lekuko xehetasun hau: *Xujart* esan behar dela argitu eta gero, horrela idazten du maisuaren abizena lantxo horretan.

Bähr-ek kontatzen du nola Schuchardt-ek mutil koskorra zela jakin zuen Euskal Herriaren berri, bere jaioterrian, Alemanian, Lehen Karlistadatik alde egindako jaun baten bidez. Hark jakin-mina piztu eta artean

gaztetxo zela euskarazko liburu bat aurkitu omen zuen liburudenda batean. Denboratan Euskal Herriarekin beste harremanik ez, eta berrogei urte zituela etorri omen zen hona, euskara ikasteko asmoz:

Udaldi samur bat igaro zuen Prantziako Euskalerrian, Saran, an Laburdiko euskerarik goxoena, eztieta mintzatzen delakoz. Jolasaldi luzeak izaten zituen Etxeberri zeritzayon zapatari prestu batekin eta iru ilabeteren buruan nai beste ta al aiña berarenganatu zuala esan zezakeen.

Hortik aurrera Schuchardt-ek euskararen jatorriaren inguruan egindako azterketen berri ematen du Bähr-ek:

Orain bi mila urte Euskalerrian ta inguruko alderdietan euskera egiten zala Xujartek azaldu du, argi ta garbi, ta bat ere ezpairik gabe egiztatu.



Bähr-tarren zaldi-kotxea.



Lehen Mundu Gerra hasi zenean, errefuxiatu alemaniarrekin.

Schuchardt-en hurrengo katebegia dugu Bähr hizkuntzalari alemaniarrek euskararekiko aspalditik erakutsi izan duten zaletasunean. Humboldt baroia izan zuten aitzindari, XIX. mende hasieran Euskal Herrian ibili eta gero Europako kultur giroetan hemengo hizkuntza eta Herriaren berri zabaldu zuen hura. Ezaugarri batek biltzen ditu hirurak: euskararekiko interes

zientifikoak Herri honen muinean sartu nahi izatera daramatzala, eta hortik, Euskal Herria eta beronen hizkuntza maitatzera. Schuchardt-ek, urtetan aurrera zihoala, adiskide bati ondokoa aitortu zion: «Orain ere, ia iltzeko zorian nagoen onek, euskerari ekitea nere pozik atseginena dala derizkiot». Bähr-ek, berriz, hala dio Alemaniatic: «Zein nai garaitan Euskalerriko gauzak darraizkit: batez ere, Euskera maitea».



Bisitari gehiago Udanan. Gerhard goiko ilaran bigarrena.





Katabera ingurua.



Kataberako meategia, 1915.

## ADITZAZ MAITEMINDUA

Bähr euskarazko aditzaren aberastasunak harrapatutako hizkuntzalaria izan zen, zalantzarik gabe. Honela aitortzen du 1941ean, Alemaniako aldizkari espezializatu batean argitaratutako *Das Baskische* izeneko euskarari buruzko txostenean:

Izaera oso berezia du euskal aditz sistemak. Izugarrizko aberastasuna eta itxuraz zailtasun ikaragarria euskaldun ez direnentzat. Hurbilagotik begiratuta, beldurgarritasun hori galdu egiten du.

Hizkuntzalaritzako bere lehen txostena Legazpiko aditzari buruzkoa izan bazen, hortik aurrera gipuzkerako aditz joko ezberdinak biltzen egingo du lan erraldoia. Bidea Azkueren *Erizkizundi Irukoitza*-k eman zion. Izan ere, 1923ko udan Gipuzkoan zehar ibili zen Euskaltzaindiaren presidentek prestatutako galdeketa hori betetzen. Hitzen hotsa edo fonetika, erabidea edo morfologia eta erabilera edo lexikografia biltzeko egina zen galdeketa hori, «Euskaltzaindiak bere erabakiak errotuago izan ditezen» bultzatua. Bähr-ek galdeketa hori herriz herri betetzen zuen bitartean, beste altxor bat ere pilatu zuen: aditz jokoena.

# 16

Hogeita hamazortzi herritan ibili zen Bähr, Gipuzkoan aldenik alde, Irundik Zegamara, eta Berastegitik Zumaiara. Euskalkiz bizkaierakoak direnak bakarrik utzi zituen alde batera, ez ordea nafarrerakoak, hala nola Oiartzun eta Hondarribia. Lan eskerga honen izena, Bähr-ek zehaztasun osoz bataiatu zuen modura: «Estudio sobre el verbo guipuzcoano, comprendiendo el presente e imperfecto de indicativo del auxiliar transitivo *izan* y de los verbos *jakin, euki, ekarri, eraman, egon, joan, etorri, ibili* en sus flexiones



comunes y alocutivas». Julio Urkixok zuzentzen zuen *Revista Internacional de Estudios Vascos* delakoan argitaratu zen emaitzaren zati bat, 1926an hasi eta 1935 bitartean, bi urtetan, 1932 eta 1933an, ez beste. Forman erabat lan teknikoa da. Aditz jokoak paradigmetan daude antolatuta, hogeita hemeretzi zutabetan: forma literarioa erreferentzia modura, eta ondoren miaturiko herri bakoitzari dagokiona, ñabardura guztiz. 1936ko Gerrak eten zuen argitalpena.

Nolanahi ere Bähr-ek euskararen beste arlo batzuk landu zituen. Eta horietan bere izaera eta zaletasunen isla aurki daiteke.




Aditzari buruzko lanaren lehen argitalpena.

## BÄHR NATURAZALEA

Intelektual bizikletadunak hizkuntzaz gain bazituen beste jakin-min eta interesgune batzuk, izadiarekin eta hari buruzko jakintza zientifikoarekin lotuak. Horren adierazle, lehenengoz argitaratu zuen artikulua: «Uaño naiz xirietaz». *Euskal Esnalea*-ren 1922ko garagarriko zenbakian azaldu zen, aldizkari horrek antolatutako lehiaketa bat irabazi eta gero. Artikulu zientifiko-dibulgatiboa da, euskara jaso eta zail samarrekoa; berak aitortzen duenez, gaia ordura arte euskaraz erabili ez delako «itz zail eta gutxi ezagun batzuk» jasotzen ditu. Idatziaren bukaeran hitz bereziago horien zerrenda ematen du, alboan zehaztuz neologismoa den, zein autoreri hartua –Azkue, Oihenart–, edo zein euskalki edo zonatan jaso –Erronkari, Goierri...–. Nabarmena da artikulu horretan Bähr-ek nola lotzen dituen bere jakintza zientifikoa eta hizkuntzari dagokiona, euskara gai ez ohikoetara egokitzeko saiakeran.

Landare kontuekin segiz, eta beti ere herriz herri bildutako altxorrari tiraka, landare izenei buruzko artikulu bat

Hannover-en idatzi eta *RIEV*-en argitaratu zuen 1929an. Urtebete lehenago eta aldizkari berean erle, tximeleta eta abarren izenei buruzko artikulu bat idatzia zuen, eta urte batzuk geroago, 1936an, berriro landu zuen gai hori bera, zabal eta sakonago. Azken horretan dio bere helburua hitzen etimologiak bilatzea dela, eta horregatik, ez da mugatzen zomorroen izenak ematera, aldiz, bakoitzaren inguruan dauden uste, esaera eta kanta bildu eta aztertzen ditu, ezagutzen dituen beste hizkuntza eta kulturetakoekin alderatuz. Adibidez *amona gonagorri*-ari buruz dio Euskal Herrian, Catalunyan eta Austrian antzeko abestiak kantatzen zaizkiola eta «... oso paper garrantzitsua izan behar zuela Europako antzinako mitologietan», arioen eta euskaldunen artean ilargiarekin eta eguzkiarekin ere lotzen omen dela eta.



## ETIMOLOGIATIK MITOLOGIARA

Meatzaritzarekin aitarengandik zuen zerikusiaren oihartzuna suma liteke beste artikulu batzuetan, berunaren izenaz idatzi zituenetan. *Berun* hitzaren etimologiaz dihardu *RIEV*-en 1926an eta 1933an argitaratutako artikulu banatan. Alemanieraz nahiz gaztelaniaz idatziak dira, eta hizkuntzalariei zuzenduak.

Lur barrura ez ezik, zerura ere begiratzen zuen Bähr-ek ordea, eta horrela bere beste artikulu bat hauxe da: «Ostraillika eta ostadarra Gipuzkoan» (*Euskera* eta *RIEV*, 1931). Horretan izen bilketa aberatsa egiten du. Herriz herri jasotako hitzak, dagoeneko galduxe ditugunak. Artikuluan zehar, gainera, hizkuntzalaritzaren mugak gainditu eta etnografian sartzen da, ortzadarraren eta Santiagoko Bidearen inguruan dauden sinesmen eta erritualen berri emanez. Hasteko, dio, behin Gipuzkoan, «agerpen izugarri ederra» ikusi zuela, ortzadar hirukoitza alegia. Hondarribian bikoitzari *azerien boda* deitzen omen diote eta Ormaiztegin, berriz, legenda batek omen dio Jainkoak eta Deabruak apustu bat egin zutela ortzadarra ikusita.


Honenbestez, euskal mitologiari bete-betean heldu zion bada garai eta

aldizkari berean (*RIEV*, 1931). Oinarrian iritzi hauxe, santu asko garai bateko jainkoen ordezkioak direla. Aipatzen ditu, *sorgin haizea*, Anboto edo Aketegiko Damak ihes egin omen zuen *Zaldi Zuria* edo nola toki batzuetan badagoen uste hau, ortzadarraren azpitik pasatzen dena sexuz aldatu egiten dela, mutila neska bihurtuz eta alderantziz. Beste hau ere kontatzen du, Goierrin jasoa: bat-bateko haize bolada azkar batek orbela eta arbolarik sendoenak ere astintzen dituenen ateratzen duen zaratak, urrutiko hitz hotsen eta zakur zaunken oihartzuna dakarrela. Ba haize bolada horren pasaeran hauxe esaten omen da: «An dabiltz eiztari eta txakurrek». Eta hor, esaera horretan, Bähr-ek sineste zaharren baten aztarna aurkitzen du, agian mitologikoa. Ez du uste, hala ere, inoiz euskal mitologiaren sistema osoa



berregin ahal izango denik, «...baina folkloreak eta goian aipaturiko hitz eta esapideen azterketa konparatibotik euskaldunek jentilen garaian zituzten sinesteei buruzko datu garrantzitsuak» atera ahal izango direla dio.

Jentilen kontuak gogoko izan behar zituen Gerhardek. Julio Urkixori 1930ean idatzitako gutun batean kontatzen du nola hamar urte lehenago Legazpi eta Antzuola arteko mugan, Jentiletxe izeneko tokian, tumulu bat aurkitu zuen, eta handik gertu Jentilola izeneko beste toki bat dagoenez, hor ere ez ote den beste tumulu bat egongo. Urkixok berri hauek interesgarrizat jo eta gutunaren zati hori *RIEV*-en argitaratu zuen.



Azkeri idatzitako gutunean, sinadura.

## SENITARTEA IKUSMIRAN

Oso zaila da gaur egun hizkuntzatik bakarrik abiatuz ondorioztatzea euskaldunek ze komunitate mota zuten eta zein hitz horri deitzeko.

Oraingoan familia izenak miatzen dihardu Bähr-ek, antzinako euskaldunek senitartea nola antolatzen zuten jakin nahian. Goiko aipamenari jarraiki, hizkuntzaz gain soziologiak, zuzenbideak, etnologiak eta historiaurreak argibideak noiz emango zain egon beharra dagoela dio, hipotesiren bat zertu ahal izateko. Matriarkadoaren auzia aipatzen du, baina batez ere kontu honek pizten dio arreta: adineko gizon batek –aitona batek– bere familiako lau pertsona motari deitzeko izen bakarra izateak. Alegia, *iloba* hitza bakarrik daukala bere umeen nahiz senideen seme-alabak izendatzeko. Eta galdera hauxe luzatzen du: «Batzuk eta besteak bereizteko beharrik ez zeukatelako ote da? Denek familia handi bat osatzen zutelako, non seme-alaben eta senideen umeak nahastu egiten ziren?». Hortxe uzten du Bähr-ek auzia.

Senitartekoen izenei buruzko lan hori Euskaltzaindiak saritu egin zuen 1930ean, eta bost urte geroago argitaratu zen.

## 20

### JATORRI EZKUTUAREN BILA

Ikusten da Bähr-i arlo ezberdin askok pizten ziola arreta. Baina euskara aztertzearen helburu nagusia, beretzat, hauxe da: euskararen jatorria bilatu eta gainerako hizkuntzen artean sailkatu ahal izatea. Horixe dio hitzez hitz euskara eta kamitikoari buruzko artikuluan (*RIEV*, 1934). Beldur da ez ote den behin betiko egia bihurtuko Kanpionen esaldi hura, alegia, Euskal Robinsonak uharte bakartian jarraitu beharko zuela bizi izaten; zientziarentzat lotsagarria iruditzen zaio euskararen jatorri misterioitsuari erantzunik ezin aurkitu ahal izatea. Berak ez du etsi nahi.

Bi lerro nagusi zeuden garai hartan hizkuntzalarien artean euskararen jatorriaz: hizkuntza kaukasikoekin lotzen zutenak edota Afrikaren iparraldeko hizkuntza kamitikoekin. Schuchardt-ek bigarren tesi horretara jotzen zuen. Bähr-ek maisuaren lekukoa hartu eta bere doktore tesia euskara eta iberierari buruz egin zuen. Atera zuen ondorioa, dena den, Schuchardt-en bidearen kontrakoa gertatu zen. Joakin Gorrotxategi,

tesiarene aztertzaileak, honela laburbiltzen du mamia:

Askotan aipatutako euskara eta iberieraren arteko ustezko parekotasunak uste ustelak baino ez direla eta, ondorioz, ez dagoela batere frogatua hainbeste aldiz aldarrikatua izan den hizkuntza bien arteko ahaidetasuna. Ondorio honetara heltzen da Bähr eta hauxe da, hain zuzen ere, bere tesiaren muina.

Bähr-ek berak, 1940ko martxoaren 28an Julio Urkixori zuzendutako gutun batean horrela jakinarazten dizkio tesiaren gorabeherak:

Urtarrilean eta otsailean izan nituen baimen aste batzuk eta tesia amaitzeko aprobetxatu nituen; hil honen lehen egunean pasa nuen ahozko azterketa *magna cum laude* notarekin. Oker ez banabil, hau da euskara gaitzat duen bigarren tesia, lehena Léon-ena izango baita. Ni oso pozik nago, lehenik eta behin lortu dudan emaitza izugarriarengatik; era berean, ia bat-batean bukatu izanagatik –ahalegin izugarria eginez, hori bai– orain dela urte batzuetatik hona kezkatzen ninduen eginkizun hau.

Göttingen-eko Unibertsitatean aurkeztu zuen tesia Bähr-ek. Ordurako Bigarren Mundu Gerran zebilen; Urkixori aipatzen dion baimen hori, Armadarako zerbitzuan izandako baimena da, hain zuzen ere. Argitaratu, Bähr hil eta gero argitaratu zen *Baskisch und Iberisch*, 1947-48an, Baionan, *Eusko Jakintza* aldizkariaren separata modura. Beste euskalari alemaniar batek, Karl Bouda, Berlingo Unibertsitatean euskal hizkuntzalaritzako irakasle izanak, bultzatu zuen argitalpena. Ehun eta hogeit hamar orrialdeko lana da, ez oso zabala beraz, baina esan liteke Bähr-ek hor harrapatu zuela euskararen azterketan gailurra.



Gerhard Armadako uniformeaz, Lehen Mundu Gerrako amaiera aldera.

Berak, ordea, ez zuen bukatutzat jotzen auzi hori. 1942an, Errusian kanpaina zebilela, Urkixori idatzitako gutun batean kontatzen dio euskara eta iberieraren gaiarekin jarraitzeko ez daukala nahiko asti eta ezta behar lituzkeen liburuak ere, baina kanpaina amaitutakoan berriro gai horri ahalegin guztiz heltzeko asmotan dagoela. Aldi berean galdetzen dio Urkixori ea euskalgintzari ekin dioten berriro, Gerraren haustura gaindituta. Bere ustez, «...zenbat eta beranduago, orduan eta zailago izango da duela urte batzuk etendako lanari jarraitzea». Hortxe Bähr-en kontraesan ikaragarria. Izan ere, euskara eta euskal kultura baztertu eta zanpatu nahi zutenen bandoan zegoen bera politikoki, eta aldi berean ez zuen sekula amore eman hizkuntza eta kultura horren defentsan.



Berunaren inguruan egindako lanetako bat.

## IDEOLOGIAREN PARADOXAK

Gerra aurreko euskalgintzan nabari litezkeen bi joeren artean –Aranaren jarraitzaileak batetik, Azkue eta batez ere Julio Urkixoren inguruan biltzen zirenak bestetik– Bähr bigarren horien eskolakoa azaltzen zaigu. Ez ditu batere atsegin aranazaleen hizkuntza joerak, zer esanik ez haien neologismoak. Gainera iruditzen zaio politika gehiegi nahasten dutela euskalgintzan. Horrelako aipamenak Urkixori idatzitako gutunetan azaltzen dira batez ere. Urkixo karlistarekin, bistan da, ondo etortzen zen, ez bakarrik hizkuntza kontuan, baita politikan ere. 1939ko ekainaren 20an Hannover-etik idatzitako gutun batean, «gorriek» anaia hil diotela eta dolumina adierazi eta gero, honela mintzatzen zaio amaitu berri zen Espainiako Gerraz:

Hemen denbora guztian Espainiako gertakizunen jakitun egon gara, eta pentsa dezakezu nolako arreta eta sinpatiaz jarraitzen zen kausa zuzena eta beronen behin betiko garaipena. Gure egunkariak, aldizkari eta filmak bezala, gerrari buruzko kontakizunez beterik daude eta jendea oso interesaturik dago horretan guztian, izan ere tragedian zehar gure egunkariek berri laburrak besterik ez zituzten ekartzen, bistako arrazoiengatik.



Hans-Peter semearekin.

Hiru hilabete eskas falta ziren Bigarren Mundu Gerra hasteko, Bähr-i heriotza ekarriko zion gerratea. 39 urterekin mobilizatu eta Berlinen egoitza zeukan Interpretarien Zerbitzura destinatu zuten. Lan horri jarraiki, Francok bidalitako *División Azul*-ekin Errusiara joan zen, beti ere itzultzaile modura. Hogeita bi hilabete igaro zituen han, 1942tik 1944ko martxoa bitartean. Urkixori, 1942ko irailean, kontatzen dio *camarada* euskaldunak



topatu dituela, eta haien harridura beren ama-hizkuntzan mintzo zaienean. Baina ez dutela behar adinako maila beraiekin hizkuntzalaritzako azterketarik egin ahal izateko. Aldiz, errusiera ikasteari ekin diola, eta hain zuzen ere, Euskal Herrian hamabost-hogei urte lehenago euskararekin egin ohi zuen antzeko giroan, nekazaritza inguruan alegia. Errusiera izango zen bere bizitzan zehar ikasi zituen hamabost hizkuntzetan azkenetarikoa. Horren ondoren estonierarekin ere jardun zuen.

Gerraren erdian tarte bat hartu zuen ezkontzeko, 1942an, hamar urte lehenago ezagututako Erika Micharekin. Eztei-bidaia gustura egingo omen zuketan Euskal Herrira, baina ezin. Urtebetera, 1943ko urtarrilean, ezagutuko zuen semea, Hans Peter, Errusiako kanpainan zegoela utzi zioten hamabost eguneko baimenaldian. Ekainean zauritu egin zuten; hilkorra izan zitekeen zauria, ez zen azkenean hain larria gertatu, bizkarrean metraila puskak utzi bazizkion ere. Urte horretan bertan galdu zuen Hannover-eko bonbardaketan etxea, eta, «... gehiago sentitzen dudana, nere liburutegia. Ez daukat dagoeneko euskal liburu bakar bat ere! Jabetuko zara zeinen larria den neretzat galera hau» idazten dio Errusiatik Urkixori. Kaltea berdintzen hasteko, Georges Lacombe

euskaltzaleak, Urkixorekin batera *RIEV*-en sortzaile eta idazkari izan zenak soberan dituen euskal liburuak eskaintzen dizkio, eta Bähr-ek estimazio handiz hartu oparia. Urkixorekin bezala, oso harreman ona zuen alemaniarrek Lacomberekin. Paradoxa hemen ere: Lacombe Lehen Mundu Gerran alemaniarren kontra eskuineko besoa galdutakoa zen. Eta paradoxetan sartuta, don Jose Migel Barandiaranek, frankistengandik ihesi Saran aterpetuta zegoela, bere argitalpen guztiak bidaltzen zizkion Bähr-i, eta honek poz izugarritz jaso, jakina, euskal ikasketak jarraipena zuten seinaleztat jotzen baitzituen.

Adierazgarria da 1941ean, Alemanian euskararen alde egiteko asmoz idatzi zuen *Das Baskische* artikuluan dioen hau:

Luzarora tamalgarriena zera izan da, hizkuntzalaritza joera eta pretentsio politikoeekin nahastea. Euskaltzalea izatea, askotan, eta motiborik gabe gehienetan, separatista izatearekin lotzen zen.

Euskaltzaletasuna eta abertzaletasuna bereizi egin nahi zituen beraz Bähr-ek. Berak eta beste batzuek hala bizi izan zuten euskal arazoa, abertzale izan ez, baina bai zinez euskaltzale. Bere bandoko gehienak, ordea, euskararen etsai ziren.

## HERIOTZA BERLINEN

Gerraren amaierak Berlinen harrapatu zuen Gerhard. Bere seme Hans Peter-ek berri hauek ematen ditu senitartekoengandik jasota:

Gerraren azken asteetan, nire aita zerbitzu aktibora deitu zuten. Gobernu naziaren beste krimen bat izan zen tropa errusiarrek Berlin setiatu zutenean hiria defentsarako gizon nagusiak eta haurrak erabiltzea. Nire aita, borrokarako ezgai erabat, Berlin-Moabiteko kaleko liskarretan erori zen. Amaiera berehala zetorrela ikusirik, adiskide eta senitartekoez ezkutatu zutela agindu zioten, baina berak uko egin zien eskaintza horiei.

Gerra bukatutakoan Gerhard «desagertutzat» deklaratu zuten. Emaztea eta semea Mcklenburg-en zeuden, Alemaniaren ipar-iparrean, Hannover-eko bonbardaketetatik ihesi irten eta senitarteko batzuen etxera bilduta. Han jakin zuten, bost urte geroago, 1950ean, Gerhard 1945eko apirilaren 27an hil zela. Emazteak, Erikak, bila eta bila ibili eta gero, Gerhard lurperatu zuten tokia nola hala kokatu ahal izan zuten, Berlin-Moabiten, soldaduen hilerri batean.

Bähr-tarren Euskal Herriko abentura aspaldi amaitu zen, 1926an. Gerhard 1930ean izan zen azken aldiz Euskal Herrian, baina heriotzak bakarrik

apartatu zuen lurralde honetatik. Bere herentzia, oso-osorik ez badago ere, euskalaritzaren ondareko parte da. Urtetan ahaztuxe egon ondoren, legazpiarrek plazaratu dute altxor hori, herrikide izan zutena ezagutarazi eta aintzat hartua izan dadin. Ez alferrik, *Alemanen Etxeak* oraindik zutik dirau Udana gainean, Katabera azpian, iraganaren lekuko isil sendo.



*Alemanen Etxea, iraganaren lekuko.*

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:*

- *Bähr familia*
- *Legazpiko Udaletxea*
- *José Luis Ugarte*
- *Gorka Salmerón*
- *Xabier Goñi*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2000ko abendua

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: Rali, S. A.  
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao (Bizkaia)

Inprimaketa: Estudios Gráficos Zure, S. A.  
Carretera Lutxana-Asua, 24 - 48950 Erandio Goikoa (Bizkaia)

ISBN: 84-457-1611-5 (Obra osoa)  
84-457-1613-1

L.G.: BI-3084-00

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística